



Sony Ericsson W705 Walkman

erabiltzailearen eskuliburua



Sony Ericsson

Euskaltelek itzultako eta
ekoiztutako eskuliburua



Eskerrik asko Sony Ericsson mugikor bat erosteagatik.W705 Walkman®. Erraz aurkitzeko moduan egon, eta entzun musika modu berritzailean.

Telefonoari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, joan www.sonyericsson.com/fun. orrira Erregistratu orain www.sonyericsson.com/myphone orrian, tresnak lortzeko, linean doan biltegitratzeko eta eskaintza berezien, albisteen eta lehiaketen berri izateko.

Produkturako laguntza teknikoa eskuratzeko, joan www.sonyericsson.com/support/webgunera.

Osagarriak: telefonoarentzako eduki gehiago

MBS-900 haririk gabeko etxeko audio-sistema
Zure musikak forma har dezala



Bluetooth® HBH-DS205 entzungailu estereoak
Entzun musika haririk gabe, dei bat bera ere galdu gabe



HPM-88 entzungailuak, zarata kentzeko sistemarekin
Entzun musika eta ahaztu zarataz



Osagarri horiek bereiz eros daitezke baina baliteke denda guztietan eskuragarri ez egotea. Deskribapen osoak eta funtzioei eta osagarrien gamari buruzko informazio gehiago ikusteko, joan www.sonyericsson.com/acesorioses/webgunera.

Edukia

Sarrera6

Muntatzea.....	6
Telefonoa piztea.....	7
Laguntza.....	8
Bateria kargatzea.....	8
Telefonoaren deskribapen orokorra.....	10
Menuen deskribapen orokorra.....	12
Nabigazioa.....	14
Memoria.....	15
Telefonoaren hizkuntza.....	17
Testua idaztea.....	17

Walkman®18

Esku libreko kit eramangarri estereoa.....	18
Walkman® erreproduzitzailea.....	19
PlayNow®.....	23
TrackID®.....	24
Musika eta bideoklipak linean.....	24
Bideo-erreproduzitzailea.....	24
Irratia.....	24
MusicDJ®.....	25
Grabagailua.....	25

Edukiak transferitzea eta kudeatzea26

Telefonoko edukiak kudeatzea.....	26
Edukiak beste telefono batera bidaltzea.....	27
Edukia ordenagailura transferitzea, eta alderantziz.....	27
USB kablea erabiltzea.....	28
Telefonoaren izena.....	29
Haririk gabeko Bluetooth® teknologia erabiltzea.....	30
Segurtasun-kopiak eta leheneratzea.....	31

Deiak34

Deiak egitea eta jasotzea.....	34
Kontaktuk.....	36
Markatze bizkorra.....	40
Dei-funtzio gehiago.....	40

Mezuak45

Testu-mezuak eta MMSak.....	45
Ahots-mezuak.....	47
Posta elektr.....	47

Berehalako mezularitza.....	49
Irudiak.....	51
Kamera erabiltzea.....	51
Kameraren funtzio gehiago.....	52
Argazkiak bistaratzea eta etiketatzea.....	52
Argazkiak erabiltzea.....	53
Argazkiak erabiltzea.....	54
Blogak.....	55
Argazkiak inprimatzea.....	56
Internet.....	57
Gogokenak.....	57
Historia-orriak.....	57
Nabigatzailearen funtzio gehiago.....	57
Interneteko segurtasuna eta ziurtagiriak.....	59
Web dokumentuak.....	59
Wi-Fi®.....	61
DLNA®.....	61
Sinkronizazioa.....	62
Ordenagailuarekin sinkronizatzea.....	62
Interneteko zerbitzu baten bidez sinkronizatzea.....	63

Funtzio gehiago.....	64
Hegaldi modua.....	64
Eguneratze-zerbitzua.....	64
Kokapen-zerbitzuak.....	65
Alarmak.....	65
Egutegia.....	67
Oharrak.....	68
Zereginak.....	68
Profilak.....	68
Eguna eta ordua.....	69
Gaia.....	69
Menu nagusiaren antolamendua.....	69
Dei-tonuak.....	70
Pantailaren orientazioa.....	70
Jokoak.....	70
Jokoak.....	71
Blokeoak.....	71
Arazoak konpontzea.....	74
Ohiko galderak.....	74
Errore-mezuak.....	77
Informazio garrantzitsua.....	79
Aurkibidea.....	92

Sony Ericsson W705 Walkman®

UMTS/HSPA band 1/8 GSM/GPRS/EDGE

850/900/1800/1900

Erabiltzailearen eskuliburu hau Sony Ericsson Mobile Communications AB-ek edo hari lotutako tokiko enpresak argitaratu du, eta ez da inolako garantiarik eskaintzen. Sony Ericsson Mobile Communications AB-ek edozein momentutan eta alde zuzenetik jakinarazi gabe egin ditzake aldaketak erabiltzailearen eskuliburu honetan, akats tipografikoak zuzentzeko, oraingo informazioaren zehaztasun falta osatzeko edo programa edo ekipoiaren hobekuntzak egin direlako. Dena den, aldaketa horiek eskuliburu honen hurrengo edizioetan sartuko dira. Eskubide guztiak erreserbatuta.

©Sony Ericsson Mobile Communications AB, 2008
Argitalpen-zenbakia: 1221-2509.1

Oharra:

sare batzuek ez dituzte onartzen erabiltzailearen eskuliburu honetako zerbitzu guztiak. *Hau GSM 112 nazioarteko larrialdiko deiak egiteko zenbakian ere aplikatzen zaio.* Zerbitzu bat erabil dezakezun ala ez seguru ez badakizu, jarri harremanetan zure sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin.

Telefono mugikorra erabili aurretik, irakurri *Informazio garrantzitsua* atala.

Zure telefono mugikorrek eduki osagarriak (adibidez, dei-tonuak) deskargatzeko, gordetzeko eta bidaltzeko gaitasuna du. Eduki horren erabilera mugatuta edo debekatuta egon daiteke hirugarren batzuen eskubideen arabera; horien barnean sartzen dira, batera mugarik gabe, aplikatu beharreko copyright legearen araberako mugak. Telefono mugikorrean deskarga dezakezun edo bertatik bidal dezakezun eduki gehigarriaren erantzule bakarra zu zeu zara, eta ez Sony Ericsson.

Edozein eduki gehigarri erabili aurretik, egiaztatu

eduki horren erabilera lizentzia bidez edo beste moduren batera behar bezala baimenduta dagoen. Sony Ericsson-ek ez du inolako eduki gehigarrien edo hirugarrenen edukien zehaztasunik, osotasunik edo kalitaterik bermatzen. Sony Ericsson-ek ez du inolaz ere eduki gehigarrien edo hirugarrenen edukien bidegabeko erabilerearen erantzukizunik izango. ACCESS Co., Ltd.en marka komertziala edo marka komertzial erregistratua da Smart-Fit Rendering. Bluetooth SIG Inc.-en marka komertziala edo erregistratua da Bluetooth, eta Sony Ericsson-en marka horren edozein erabilera lizentziapean dago. Esferako logotipoa, SensMe, PlayNow, MusicDJ, PhotoDJ, TrackID eta VideoDJ marka komertzialak dira edo Sony Ericsson Mobile Communications AB-k erregistratutakoak. Gracenote Mobile MusicID®-rena da TrackID®. Gracenote eta Gracenote Mobile MusicID marka komertzialak dira edo Gracenote, Inc.en marka komertzial erregistratua. Sony Corporationen marka komertziala edo marka komertzial erregistratua da WALKMAN. Wi-Fi Alliance-ren marka komertziala edo marka komertzial erregistratua da Wi-Fi. Digital Living Network Alliance-ren marka komertziala edo marka komertzial erregistratua da DLNA .

Sony Computer Entertainment, Inc-en marka komertziala edo marka komertzial erregistratua da PLAYSTATION .

Sony, Memory Stick Micro® eta M2® markak Sony Corporation-en marka komertzialak dira. Google® eta Google Maps® markak Google, Inc.en marka komertzialak edo marka komertzial erregistratuak dira. Open Mobile Alliance LTD-en marka komertziala edo marka komertzial erregistratua da SyncML. Telefonaktiebolaget LM Ericsson-en marka komertziala edo erregistratutakoa da Ericsson. Adobe Systems Incorporated-en marka komertziala edo marka komertzial erregistratua da Adobe Photoshop Album Starter Edition, AEBn eta beste herrialde batzuetan.

Microsoft, ActiveSync, Windows, Outlook, Windows

Media eta Vista Microsoft Corporation-en marka komertzialak edo marka komertzial erregistratuak dira AEBn eta beste herrialde batzuetan. Tegic Communications-en marka edo marka komertzial erregistratu da T9® Text Input. T9® Text Input lizentzia hauetako batekin edo batzuekin ekoizten da: AEBko pat., zk. 5,818,437, 5,953,541, 5,187,480, 5,945,928 eta 6,011,554; Kanadako pat., zk. 1,331,057; Erresuma Batuko pat., zk. 2238414B; Hong Kong-eko patente estandarra, zk. HK0940329; Singapurreko Errepublikako pat., zk. 51383; Euro. pat., zk. 0 842 463/96927260.8) DE/DK, FI, FR, IT, NL, PT, ES, SE, GB; eta egiteko dauden munduko beste leku batzuetako beste patente batzuk. Microsoft-en jabetza intelektualaren zenbait eskubidek babesten dute produktu hau. Debekatuta dago teknologia hori produktu honetatik kanpo erabiltzea edo banatzea Microsoften baimen espezifikorik gabe.

Edukien jabeek Windows Mediaren (WMDRM) eskubide digitalen kudeaketarako teknologia erabiltzen dute beren jabetza intelektualak babesteko, copyrightaren eskubidea barne. Gailu honek WMDRM software-a erabiltzen du WMDRMk babestutako edukian sartzeko. WMDRM Softwareak ezin badu edukia babestu, babesa duten edukiak erreproduzitu eta kopiatzeko WMDRM erabiltzeko softwarearen funtzioa eteteko eska diezaiokete Microsofti edukien jabeek. Eteteak ez dio eragiten babesik ez duen edukiari. Babestutako edukirako lizentziak deskargatzean, erabiltzaileak onartzen du Microsoftek lizentzien etete-zerrenda bat gehitu dezakeela. Edukiaren jabeek WMDRM eguneratzeko eska dezakete edukira sartzeko. Eguneratze bat onartzen ez bada, ezingo da sartu lizentzia hori behar duten edukietara.

Ikusizko MPEG-4 eta AVC lizentziak eskuratu dituzten produktu honek, bezero baten erabilera personal eta ez-komertzialerako (i) visual MPEG-4 ("video MPEG-4") araudiaren arabera edo AVC estandarren ("video AVC") arabera bideoa kodetzeko eta (ii) jarduera personal eta ez-komertzial batean kontsumitzaile

batek kodetu duen eta (iii) MPEG-4 edo MPEG-4 edo MPEG-4 eta (iv) AVC bideoa banatzeko lizentzia duen bideo-hornitzaile baten baimenarekin lortu den AVC bideoa deskodetzeko. Ez da beste erabileraren baterako baimenik emango, eta ez da inplizituztat hartuko. Informazio gehiago eskuratzeko (erabilera komertzialei, barnekoei, sustapenekoei eta lizentziak eskuratzeari buruzkoa barne), jarri harremanetan MPEG LA, L.L.C.rekin. Ikus <http://www.mpegla.com>. Audioa deskodetzeko MPEG Layer-3 teknologia, Fraunhofer US eta Thomsonen lizentziarekin. Java, JavaScript eta Java-n oinarritutako marka komertzial guztiak eta logotipoak Sun Microsystems, Inc. enpresaren marka komertzialak edo marka komertzial erregistratuak dira AEB eta beste herrialde batzuetan. Sun Java Platform, Micro Edition-en azken erabiltzailearen lizentzia-kontratua.

1. Mugak: softwarea informazio konfidentziala da eta Sun-en copyrighta dauka. Kopia guztien titulartasuna Sun-ek eta lizentzia duen orok dauka. Bezeroak ez du aldatuko softwarea, ezta deskonpilatu, desmuntatu, deskodetu edo aterako ere, edo alderantziz. Softwarea ezin da alokatu, ezta bigarren lizentzia bat esleitu edo eman ere zati bati edo software osoari.
2. Esportazio-arauak: softwarea eta datu teknikoak AEBko esportazioa kontrolatzeko legeen baldintzapean daude, Esportazioa Administrazio Legea (Export Administration Act) eta harekin lotutako erregulazioak barne. Halaber, beste herrialde batzuetako inportazio- edo esportazio-arauen baldintzapean egon daitezke.

Bezeroak arau horiek guztiak betetzea onartzen du eta softwarearen esportazio-, berresportazio- edo inportazio-lizentziak lortzeko erantzukizuna duela badaki. Softwarea ezin da deskargatu, ezta esportatu edo berriro esportatu (i) ere lurraldearen barruan bertako bati edo Kuba, Irak, Iran, Ipar Korea, Libia, Sudan, Siria (zerrenda hori aldizka berrikusi behar izaten baita) edo AEBk ondasunen bahitura jarrita duen beste

herrialde bateko herritar bati, ezta (ii) AEBko Hazienda Ministerioak zerrendan bereziki izendatutako herrialdeei edo AEBko Merkataritza Departamenduko eskaerak ukatzeko taulan agertzen direnei ere. Estatu Batuetako gobernuak erabilera, bikoizte edo ezagutarazteari dagozkion murrizketak bete behar ditu, software informatiko eta datu teknikoaren klausulen (Technical Data and Computer Software Clauses) eskubideetan ezarritakoaren arabera, DFARS 252.227-7013(c) (1) (ii) eta FAR 52.227-19(c) (2) klausuletan, horiek aplikatzea dagokionean.


Eskubide mugatuak: Estatu Batuetako gobernuak erabilera, bikoizte edo ezagutarazteari dagozkion murrizketak bete behar ditu, software informatiko eta datu teknikoaren klausulen (Technical Data and Computer Software Clauses) eskubideetan ezarritakoaren arabera, DFARS 252.227-7013(c) (1) (ii) eta FAR 52.227-19(c) (2) klausuletan, horiek aplikatzea dagokionean. Dokumentu honetan aipatutako gainerako produktu-izenak eta enpresak haien jabeen marka komertzialak dira. Hemen berariaz azaltzen ez diren eskubide guztiak erreserbatuta.

Irudi guztiak erreferentziakoak dira, eta ez dira telefonoaren deskribapen zehatzak.


Jarraibideen ikurrak

Erabiltzailearen eskuliburuan ikur hauek agertzen dira:

 Oharra

 Aholkua

 Erne:

 Zerbitzu edo funtzio bat aldatu egiten da sarearen eta harpidetza-aren arabera. Jarri harremanetan sare-operadorearekin, informazio gehiago izateko.

> Erabili aukeraketa-teklak edo nabigazio-teklak mugitzeko eta aukerak hautatzeko. Ikus *Nabigatzea*, 14. orrialdean.

Sarrera

Muntatzea

Telefonoa erabiltzen hasi aurretik, SIM txartela eta bateria sartu behar dira.


SIM txartela sartzeko



- 1 Desblokeatu bateriaren tapa.
- 2 Kendu bateriaren tapa.

- 3 Sartu SIM txartela dagokion tokian, urre-koloreko kontaktuak beherantz dituela.


Bateria sartzeko



- 1 Sartu bateria alde etiketaduna gorantz duela eta konektoreak bata bestearen parean daudela.
- 2 Ipini telefonoaren tapa bere tokian eta blokea ezazu.

Telefonoa piztea

Telefonoa pizteko



- 1 Luze sakatu ①.
- 2 Sartu SIM txartelaren PINa, eskatzen badizu eta sakatu Ados.
- 3 Hautatu hizkuntza.
- 4 Oinarrizko doikuntzak ezartzeko eta aholku erabilgarriak irakurtzeko, konfigurazio-laguntzailearen erabilera-jarraibideei segi.

💡 *PINa sartzean errore bat zuzendu nahi baduzu, sakatu **C**.*

SIM txartela

Sare-operadoreak emandako SIM txartelak (abonatuaren identifikazio-modulua) zure harpidetzari buruzko informazioa du. SIM txartela sartu edo atera aurretik, telefonoa itzali eta kargagailua deskonektatu.

💡 *Telefono-aurkibideko informazioa SIM txartelean gorde dezakezu, telefonotik atera aurretik. Irakurri Izenak eta zenbakiak SIM txartelean kopiatzeko 38. orrialdean.*

PIN

Telefonoaren zerbitzuak eta funtzioak aktibatzeko, baliteke PINa (Identifikazio Pertsonaleko Zenbakia) behar izatea. PIN kodea sareko operadoreak emango dizu. Diguak * ikurrarekin ezkututzen dira, lehenbiziko zenbakiak larrialdietako telefonoren bateko zenbaki bereberekin hasten direnean izan ezik (adibidez, 112 edo 911). Hartara, larrialdietako telefono bat ikus dezakezu eta hara deitu PINik sartu gabe.

❗ *PINa hiru aldiz jarraian gaizki sartuz gero, SIM txartela blokeatu egiten da. Ikus SIM txartela blokeatzea, 71. orrialdean.*

Itxaroteko modua

Sare-operadorearen izena bistaratuko da telefonoa piztu eta PIN kodea sartutakoan. Horri itxaroteko modu esaten zaio. Une horretan, telefonoa erabiltzeko moduan dago.

Beste sare batzuk erabiltzea

Saretik kanpo (desplazamendu-egoeran) deiak egiteak eta jasotzeak, mezuak bidaltzeak eta datuak transferitzeak kostu gehigarria izan dezake. Eskatu informazio gehiago zure operadoreari.

Laguntza

Erabiltzailearen eskuliburu honez gain, badira funtzioen gidak eta informazio gehiago dago www.sonyericsson.com/support gunean.

Telefonoaren informazioa eta laguntza edozein unetan dituzu eskura.

Aholkuak eta trikimailuak ikusteko

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua > Ezarpenak > Orokorra fitxa > Konfig. laguntzailea**.
- 2 Hautatu **Aholk. eta amarruak**.

Funtzioei buruzko informazioa ikusteko

- Joan funtzio batera, eta hautatu **Inform.**, erabilgarri badago. Batzuetan, **Aukeratu-**ren azpian agertzen da **Inform.**

Telefonoak nola funtzionatzen duen ikusteko

- Itxarote moduan dagoela, hautatu **Menua > Denborapasak > Demo ibilbidea**.

Telefonoaren egoera ikusteko

- Itxaroteko moduan, bolumen-tekla. Telefonoari, memoriari eta bateriari buruzko informazioa bistaraten da.

Bateria kargatzea

Telefonoaren bateria zertxobait kargatuta egoten da erostean.

Bateria kargatzeko



- 1 Konektatu kargagailua telefonoari. 2,5 ordu inguru behar dira bateria erabat kargatzeko. Sakatu edozein tekla pantaila ikusteko.
- 2 Kendu kargagailua larakoa gorantz okertuta.


💡 *Telefonoa erabil dezakezu kargatzen ari den bitartean. Edozein unetan kargatu dezakezu bateria, 2,5 h inguru. Kargatzea eten dezakezu bateriari kalterik egin gabe.*

Telefonoaren deskribapen orokorra

- 1 Bozgorailua, entzungailuarekin
- 2 Pantailako argi-sentsorea
- 3 Bistaratzea
- 4 Kargagailurako, USB kablerako eta esku libreko kiterako konektorea
- 5 Aukeraketa-teklak
- 6 Norabide-tekla
- 7 Deitzeko tekla
- 8 Jarduera-menuaren tekla
- 9 Memoria-txartelaren zirrikitua (taparen azpian)
- 10 Bideo-deiak egiteko aukera ematen duen kamera
- 11 Amaitzeko edo aktibatzeko/desaktibatzeko tekla
- 12 C tekla (ezabatzeko)
- 13 Isilik moduaren tekla



- 14 Walkman® tekla
- 15 Bideo-deiaren adierazlea
- 16 Cámara principal
- 17 Bolumena eta zoom digitala kontrolatzeko botoiak
- 18 Flash-a
- 19 Kamera-tekla
- 20 Bozgorailua



Menuen deskribapen orokorra



PlayNow® *



Kamera



Irratia



Deiak **



Guztiak



Erantzundakoak



Markatuak



Galduak



Internet



Mezularitza

Idatzi berria
Sarrera ontzia
Hizketaldiak*
Mezuak
Mezu elektr.
IM
Deitu erantzung.



Kontaktua

Ni
Kontaktua berria



Antolatzailea

Fitxategi kudeatzailea **
Alarmak
Jokoak
Bideo deia
Erlojua konfiguratu
Egitekoak
Oharrak
Sinkronizazioa
Tenporizadorea
Kronometroa
Argia
Kalkulagailua
Kode memoria



Denborapasak

Operadore-zerbitzuak*
TrackID®
Kokapen zerbitzuak
Jokoak
VideoDJ®
PhotoDJ®
MusicDJ®
Urruneko kontrola
Grabatu soinua
Demo ibilbidea



Media

Argazkia
Musika
Bideoak
Jokoak
Web iturriak
Ezarpenak



WALKMAN



Ezarpenak**



Orokorra

Profilak
Hizkuntza
Eguneratze zerbitzua
Ahots kontrola
Gertaera berriak
Lasterbideak
Hegaldi modua
Segurtasuna
Konfig. laguntzailea
Irisgarritasuna*
Telefono egoera
Berrezartze orokorra



Soinuak eta alertak

Soinu bolumena
Soinua
Modu isila
Tonu gorakorra
Dardara alerta
Mezu alerta
Tekla soinua



Pantaila

Horma-papera
Menuen diseinua
Gaia
Hasierako pantaila
Pantaila babesa

Erlojuaren tamaina
Argitasuna
Lin. etiketa editatu*



Deiak

Markatze lasterra
Bilaketa dinamikoa
Deiak desbideratu
2. lineara aldatu
Deiak kudeatu
Denbora eta kostua
Erakut./ezkut. nire zk.
Esku libreak
Ireki, erantzuteko
Itxi deia amaitzeko



Konektagarritasuna


Wi-Fi
Bluetootha
USB
Telefonoaren izena
Sarean partekatzea
Sinkronizazioa
Gailuen kudeaketa
Sare mugikorrek
Datu-komunikazioa*
Interneteko ezarp.
Ezarpenak
Mezu ezarpenak*
SIP ezarpenak
Osagarriak

* Menu batzuk sarearen, harpidetzaren
eta operadorearen menpe daude.

** Norabide-tekla erabil dezakezu
azpimenuetako fitxetan mugitzeko.
Informazio gehiago lortzeko, ikusi
Nabigazioa, 14. orrialdean.

Nabigazioa

Telefonoaren menuetan barrena mugitzeko



- 1 Deiak jasotzeko/egiteko egoeran, sakatu Menua
- 2 Erabili norabide-tekla, menuetan barrena mugitzeko.

Pantailan bistaritzen diren ekintzak hautatzeko

- Sakatu ezkerreko, erdiko edo eskuineko aukeraketa-tekla.

Elementu baten aukerak ikusteko

- Hautatu **Aukeratu**, esate baterako, editatzeko.

Funtzio bat amaitzeko

- Sakatu

Itxaroteko modura itzultzeko

- Sakatu

Multimedia-fitxategi batetik bestera mugitzeko

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Media**
- 2 Joan menuko elementu batera, eta sakatu norabide-tekla eskuinerantz.
- 3 Atzera egiteko, sakatu norabide-tekla ezkererantz.

Elementuak ezabatzeko

- Sakatu zenbakiak, gutunak, irudiak, soinuak eta antzeko elementuak ezabatzeko.

Fitxak

Baliteke fitxak egotea. Adibidez, **Ezarpenak** aukeran, fitxak daude.



Fitxa batetik bestera mugitzeko

- Sakatu norabide-tekla ezkererantz edo eskuinerantz.

Laster teklak

Teklatuko lasterbideak erabil ditzakezu zuzenean funtzioetara sartzeko.

Norabide-teklaren lasterbideak erabiltzeko

- Itxaroteko moduan, sakatu edo funtzio batera zuzenean joateko.

Norabide-teklaren lasterbide bat aldatzeko

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua > Ezarpenak > Orokorra** fitxa > **Lasterbideak**.
- 2 Joan aukera batera, eta hautatu **Editatu**.
- 3 Joan menu batera, eta hautatu **Lasterbideak**.

Menu nagusiko lasterbideak

Menuen zenbakiak ezkerretik eskuinera eta goitik behera doaz, ezkerreko goiko izkinako ikonotik hasita.

Zuzenean menu nagusiko elementu batera joateko

- Itxaroteko moduan, sakatu **Menua** eta sakatu edo edo .

Menu diseinua aukeran, Laukiduna hautatu behar da.

! *Ikus Menu diseinua aldatzeko, 69. orrialdean.*

Jarduera-menua

Jarduera menuan, funtzio hauetarako zuzeneko sarbidea duzu.

- **Gert. berriak**: galdutako deiak eta mezu berriak.
- **Abian diren apl.:** bigarren mailan exekutitzen diren aplikazioak.
- **Nire lasterbideak**: gehitu zure funtzio gogokoak, horietara bizkor sartzeko.
- **Internet**: Interneterako lasterbidea.

Jarduera menua irekitzeko

- Sakatu .

Memoria

Edukiak memoria-txartelean, telefonoaren memorian eta SIM txartelean gorde ditzakezu. Memoria-txartel bat sartuta baduzu, argazkiak eta musika automatikoki gordetzen dira memoria horretan. Txartelik sartu ez baduzu edo beteta badago, argazkiak eta musika telefonoaren memorian gordeko dira. Mezuak eta kontaktuak telefonoaren memorian gordetzen dira, baina SIM txartelean gordetzeko hauta dezakezu.

Memoria-txartela

! Litekeena da memoria-txartel bat erosi behar izatea.

Telefonoak Memory Stick Micro® (M2®) memoria-txartela onartzen du; telefonoari gordetzeko toki gehiago eranstean dio. Memoria-txartel eramangarri gisa ere erabil daiteke beste gailu bateragarri batzuekin.


Telefonoko memoriako edukia memoria-txartelera eraman dezakezu, eta alderantziz. Ikus *Telefonoan edukia kudeatzea* 26. orrialdean.

Memoria-txartela sartzeko



- Kendu bateriaren estalkia eta sartu memoria-txartela urre koloreko kontaktuak gora begira dituela.

Memoria-txartela ateratzeko



- Kendu bateriaren tapa eta sakatu txartelaren ertza askatzeko eta ateratzeko.

Telefonoaren hizkuntza

Hizkuntza bat hauta dezakezu telefonoan erabiltzeko.

Telefonoaren hizkuntza aldatzeko

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua > Ezarpenak > Orokorra fitxa > Hizkuntza > Tel. hizkuntza.**
- 2 Hautatu aukera bat.

Testua idaztea

Testua sartzeko, pultsazio bidezko metodoa edo T9 Text Input® **T9** erabil dezakezu. T9 Text Input metodoak integratuta duen hiztegi bat erabiltzen du.

Testua idatzeko modua aldatzeko

- Testua sartzean, luze sakatu ***a/A** tekla.

Maiuskulatik minuskulara eta alderantziz aldatzeko

- Testua idaztean, sakatu ***a/A**.

Zenbakiak sartzeko

- Testua sartzean, luze sakatu **0 +** – **9** tekla.

Puntuak eta komak sartzeko

- Testua idaztean, sakatu **1**.

Ikurra sartzeko

- 1 Testua idazten ari zarela, hautatu **Auker. > Erantsi sinboloa.**
- 2 Joan ezarpen horretara eta hautatu **Txertatu**

T9® Text Input bidez testua sartzeko

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu, adibidez, **Menua > Mezularitza > Idatzi berria > Mezua.**
- 2 **T9** agertzen ez bada, luze sakatu ***a/A** tekla, T9 Text Input metodora aldatzeko.

- 3 Tekla bakoitza behin bakarrik sakatu, baita nahi duzun letra teklan aurrenekoa ez bada ere. Adibidez, "Jane" idazteko, sakatu (5), (2), (6), (3). Hitz osoa idatzi, iradokizunetan bilatu aurretik.
- 4 Erabili (↻) edo (⏪) iradokizunak ikusteko.
- 5 Sakatu (# → ⏪) iradokizun bat onartzeko.

Pultsazio bidezko metodoa erabiliz testua sartzeko

- 1 Itzaroteko moduan dagoela, hautatu, adibidez, **Menua > Mezularitza > Idatzi berria > Mezua**.
- 2 (T9) agertzen ez bada, luze sakatu (* 0/A) tekla, pultsazio bidezko metodora aldatzeko.
- 3 Sakatu (2) – (9) behin eta berriz nahi duzun letra bistaratu arte.
- 4 Hitz bat idazten duzunean, sakatu (# → ⏪) zuriune bat sartzeko.

Telefonoak integratuta duen hiztegian hitzak sartzeko

- 1 T9 Text Input bidez idazten ari zarenean, hautatu **Auker. > Letreiatu hitza**.
- 2 Editatu hitza pultsazio bidezko metodo bidez, eta hautatu **Txertatu**.

Walkman™

Musika, audio-liburuak eta poscast-ak entzun ditzakezu. Erabili *Sony Ericsson Media Manager* telefonora edukia transferitzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, ikus *Edukia ordenagailura transferitzea, eta alderantziz* 27. orrialdean.

Esku libreko kit eramangarri estereoa



Esku libreko kita erabiltzeko

- Konektatu esku libreko ekipo eramangarria. Musika gelditu egiten da dei bat jasotzean, eta erreproduzitzen jarraituko du deia amaitutakoan.

Walkman™ erreproduzitzailea

Musika erreproduzitzeko

- 1 Itzaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Media > Musika**.
- 2 Bilatu kategorien arabera, norabide-tekla erabilia.
- 3 Joan izenburu batera eta hautatu **Erreprod.**

Musika-erproduktzioa eteteko

- Sakatu erdiko norabide-tekla.

Aurrera edo atzera bizkor egiteko

- Luze sakatu (▶) edo (◀) tekla.

Pista batetik bestera mugitzeko

- Sakatu (▶) edo (◀).

Erreproduzitzailea minizatzen

- Sakatu (⏪).

Erreproduzitzaileira itzultzeko

- Sakatu (⏩).


Mugimendu bidezko kontrola


Beste pista batera joateko



- Musika erreproduzitzen ari den bitartean, luze sakatu (⏩) tekla eta mugitu telefonoa eskuinera, eskumuturra mugituta, hurrengo pista joateko. Aurreko pista joateko, egin gauza bera ezkerrean.


Pista ausaz aldatzeko



- Musika erreproduzitzen ari den bitartean, luze sakatu  tekla eta mugitu telefonoa.

Bolumena aldatzeko



- 1 Musika erreproduzitzen ari den bitartean, jarri telefonoa parean, gora begira.
- 2 Luze sakatu  tekla, eta tolestu besoa gorantz eta gorputzaren aldera, bolumena igotzeko. Bolumena jaisteko, egin gauza bera, beste aldera.

Soinu estereo garbia eta baxu garbiak

Soinu estereo eta baxu garbiak ekualizadorea eskuz doitzen denean aktibatzen dira.

Ekualizadorean lehenetsitako ezarpenak erabilia soinu estereo eta baxu garbiak aktibatzeko

- 1 Itxaroteko egoeran, sakatu .

- 2 Hautatu **Aukerak > Ezarpenak > Ekualizadorea**.
- 3 Hautatu lehenetsitako edozein ezarpen, **Arrunta** izan ezik.

Erreprodukzio-zerrendak

Erreprodukzio-zerrendak sor ditzakezu, musika antolatzeko. Pistak erreprodukzio-zerrenda bat baino gehiagotan sar ditzakezu.

Erreprodukzio-zerrenda bat edo zerrendako pista bat ezabatuz gero, ez da memoriatik ezabatzen, zerrendatik bakarrik baizik.

- ! Telefonoak *bost minutu inguru behar ditzake erreprodukzio-zerrenda bar sortzeko.*


Erreprodukzio-zerrenda bat sortzeko

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Media > Musika > Errepr. zerr.**
- 2 Joan **Errep.zer.berr.** aukerara, eta hautatu **Gehitu**.
- 3 Sartu izen bat, eta hautatu **Ados**.
- 4 Joan pistara, eta hautatu **Markatu**, gehitu nahi duzun pista bakoitzeko.
- 5 Markatutako pistak erreprodukzio-zerrendara gehitzeko, hautatu **Gehitu**.

Erreprodukzio-zerrendan pistak gehitzeko

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Media > Musika > Errepr. zerr.**
- 2 Hautatu erreprodukzio-zerrenda bat.
- 3 Joan **Gehitu musika** aukerara, eta hautatu **Gehitu**.
- 4 Joan pistara, eta hautatu **Markatu**, gehitu nahi duzun pista bakoitzeko.
- 5 Markatutako pistak erreprodukzio-zerrendara gehitzeko, hautatu **Gehitu**.

SensMe®









SensMe®-k bi aukera eskaintzen ditu erreprodukzio-zerrendak sortzeko: pistak gogo-aldartearen arabera eta telefonoko guztien artean hautatuta. Pistak gogo-aldartearen arabera hautatzeko, lehenengo *Sony Ericsson Media Manager* erabili behar duzu, horiek analizatzeko eta telefonoa transferitzeko.

Une horretan, gogo-aldarteari, tempoari eta akordeei buruzko informazioa eranstean. Pistak puntu-formarekin ageri dira, bi ardatzeko mapa batean. **Guztiak** ikuspegian telefonoko pista guztiak agertzen dira, mapan ausaz jarrita. Pisten eremu bat hautatuta, erreprodukzio-zerrenda bar sor dezakezu.







! *Musika nola aztertu jakin nahi baduzu, sakatu Sony Ericsson Media Manager-en leihoaren eskuineko goiko izkinan.*

Gogo-aldartearen arabera erreprodukzio-zerrenda sortzeko

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Media > Musika**.
- 2 Joan **SensMe**® aukerara, eta hautatu **Ireki**.
- 3 Ziurtatu **Aldarte** ikuspegian zaudela. Hala ez bada, hautatu **Aldarte**.
- 4 Pista bakoitzaren aurreko ikuspegia edukitzeko, sakatu , ,  edo .
- 5 Pistaren eremu bat hautatzeko, hautatu **Gehitu** eta sakatu  edo .
- 6 Erreprodukzio-zerrenda bat sortzeko eta Walkman® erreproduzitzailean exekutatzeko, hautatu **Sortu**.

- 7 Hautatu **Aukerak > Gorde errepr.zerr.**
- 8 Sartu izen bat, eta hautatu **Ados**.

Guztiak ikuspegitik erreprodukzio-zerrenda bat sortzeko

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Media > Musika**.
- 2 Joan **SensMe**® aukerara, eta hautatu **Ireki**.
- 3 Ziurtatu **Guztiak** ikuspegian zaudela. Hala ez bada, hautatu **Guztiak**.
- 4 Pista bakoitzaren aurreko ikuspegia edukitzeko, sakatu , ,  edo .
- 5 Pistaren eremu bat hautatzeko, hautatu **Gehitu** eta sakatu  edo .
- 6 Erreprodukzio-zerrenda bat sortzeko eta Walkman® erreproduzitzailean exekutatzeko, hautatu **Sortu**.
- 7 Hautatu **Aukerak > Gorde errepr.zerr.**
- 8 Sartu izen bat, eta hautatu **Ados**.

Audio-liburuak

Ordenagailutik *Sony Ericsson Media Manager* erabilia telefonora transferitutako audio-liburuak entzun ditzakezu.

! *Baliteke transferitutako audio-liburuak minutu batzuk behar izatea audio-liburu erabilgarrien zerrendan bistaratzeko.*

Audio-liburuak erreproduzitzeko

Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Media > Musika > Audio libur.**



Pistak *karpetan, M4B ez den beste formatu batzuetan eta ID3v2 kapitulu-etiketarik gabe egon daitezke audio-liburuak.*


Erosi orain

Baldin eta harpidetzen bazara telefonoarekin mugarik gabeko erabilera ez-etengabea egiteko aukera ematen duen musika-zerbitzu batera, geroago erosi nahi duzun pista bat marka dezakezu. Interneteko sarbidea duen ordenagailu batean zure musika Windows Media® Player-ekin sinkronizatzen duzun hurrengo aldian, markatutako pista geroago erosi nahi duzun galdetuko dizu. Onartzen baduzu, pista telefonoan deskargatuko da eta musika-zerbitzuaren kontuan kobratuko zaizu. Zerbitzu hori erabiltzeko hauxe behar duzu: musika deskargatzeko zerbitzu batean harpidetuta egotea edo kontu bat edukitzea; Microsoft® Windows Media® Player 11 edo Windows Media® Player-en bertsio berriagoa eta bateragarria; eta USB konexioa ordenagailuan.



Ezin duzu ikusi pistaren bat markatuta dagoen. Ezin duzu kendu aurrez markatutako pisten marka.

Pista bat markatzeko

- Markatu nahi duzun pista entzuten ari zarenean, luze sakatu .



PlayNow®

PlayNow®-ra konekta zaitzake, dei-tonuak, jokoak, musika, gaiak eta pantaila-hondoak deskargatzeko. Aurrebista bat ikus dezakezu edo edukia entzun, erosi eta telefonoan deskargatu aurretik. PlayNow® erabili ezin baduzu, ikus *Ezin ditut erabili Interneten oinarritutako zerbitzuak*, 75. orrialdean.



Zerbitzu hori ez dago herrialde guztietan erabilgarri.

PlayNow® erabiltzeko

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > PlayNow**®.
- 2 Joan PlayNow® aplikazioaren gunera, eta jarraitu jarraibideei, edukiaren aurrebista izateko eta hura erosteko.

TrackID[®]

Musika ezagutzeko zerbitzua da TrackID[®]. Bozgorailutik edo irratan entzuten ari zaren pistaren izenburua, artista eta bildumaren izena bida ditzakezu. TrackID[®] erabili ezin baduzu, ikus *Ezin ditut erabili Interneten oinarritutako zerbitzuak*, 75. orrialdean.

Pistari buruzko informazioa bilatzeko

- Bozgorailutik pista bat entzuten ari zarenean, hautatu **Menua > Denborapasak > TrackID[®] > Abiarazi** itxaroteko moduan.
- Irratia entzuten ari zarela, hautatu **Aukerak > TrackID[®]**.



Emaizta onenak lortzeko, erabili TrackID[®] leku isiletan.

Musika eta bideoak linean

Bideoak ikusi ditzakezu, eta musika entzun, Internetetik telefonora transmitituta. Internet erabili ezin baduzu, ikus *Ezin ditut erabili Interneten oinarritutako zerbitzuak*, 75. orrialdean.

Transferitu beharreko datu-kontua hautatzeko

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua > Ezarpenak > Konektagarritasuna** fitxa > **Ezarpenak > Konekt. hau erabiliz:**
- 2 Hautatu zein datu-kontu erabili nahi duzun.
- 3 Hautatu **Gorde**.

Musika eta bideoak transmititzeko

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Internet**
- 2 Hautatu **Auker.** > **Jo hona > Laster markak.**
- 3 Hautatu zer estekatatik transmititu nahi duzun.

Bideo-erreproduzitzailerak

Bideoak erreproduzitzeko

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Media > Bideoa > Podcastak.**
- 2 Joan izenburu batera eta hautatu **Erreprod.**

Bideoaren erreproduzioa eteteke

- Sakatu erdiko norabide-tekla.

Irratia

- ! *Ez erabili telefonoa irrati gisa debekatuta dagoen tokietan.*

Irratia pizteko

- 1 Konektatu esku libreko ekipoa telefonora.
- 2 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Irratia**.

Kateak automatikoki bilatzeko

- Hautatu **Bilatu**.

Kateak eskuz bilatzeko

- Sakatu  edo .

Bolumena aldatzeko

- Sakatu bolumen-tekla gorantz edo beherantz.

Irratia minimizatzeke

- Aukeratu **Aukerak > Minimizatu**.

Irratia itzultzeko

Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Irratia**.

Kanalak gordetzea

Aurrez definitutako 20 kate gorde ditzakezu.

Kateak gordetzeko

- 1 Irrati-kate bat aurkitu duzunean, luze sakatu **Aukerak > Gorde**.
- 2 Joan haren kokapenera eta hautatu **Txertatu**.

Gordetako kateak hautatzeko

- 1 Aukeratu **Aukerak > Kateak**.
- 2 Hautatu irrati-kate bat.





Gordetako kateetan batetik bestera aldatzeko

- Sakatu  edo .

MusicDJ[®]

Zuk zeuk sortu eta edita ditzakezu melodiak, gero doinu gisa erabiltzeko. Ezaugarri desberdinak dituzten soinu lehenetsiak ere badaude.

Melodia bat konposatzeko

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Denborapasak > MusicDJ[®]**.
- 2 Hautatu **Txertatu, Kopiatu** edo **Erantsi** soinuak.
- 3 Erabili , ,  edo  soinu batetik bestera mugitzeko.
- 4 Hautatu **Auker.** > **Gorde melodia**.

Grabagailua

Ahots-gogorarazleak edo elkarrizketak graba ditzakezu. Grabatutako soinuak doinu gisa ezar daitezke.



Herrialde edo estatu batzuetako legeek deia grabatzen hasi aurretik beste pertsonari jakinaraztera behartzen dute.

Soinu bat grabatzeko

- Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Denborapasak > Grabatu soinua > Grabatu.**

Deia grabatzeko

- 1 Hitz egiten ari zarela, hautatu **Aukerak > Grabatu.**
- 2 Hautatu **Gorde** grabazioa gordetzeko.

Grabazioak entzuteko:

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Fitxategi kudeatzailea.**
- 2 Joan **Musika** aukerara, eta hautatu **Ireki.**
- 3 Joan grabazio batera eta hautatu **Errepr.**

Edukiak transferitzea eta kudeatzea

Edukiak transferi eta kudea ditzakezu, adibidez, argazkiak eta musika.

! *Debekatuta dago copyrighta duen material babestua trukatzeko.  ikurrak adierazten du elementua babestuta dagoela.*

Telefonoko edukiak kudeatzea

Fitxategi-kudeatzailea erabil dezakezu, telefonoaren memorian edo memoria-txartel batean gordetako edukiak kudeatzeko. **Fitxategi kudeatzailea** aukerako fitxek eta ikonoek adierazten dute edukia non gorde den. Memoria betea badago, ezabatu eduki batzuk lekua egiteko.

Memoriaren egoera ikusteko

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Fitxategi kudeatzailea.**
- 2 Hautatu **Aukerak > Memoria** egoera.
- 3 Hautatu **Memoria-txartela** edo **Telefonia.**

Karpeta bateko elementu bat baino gehiago hautatzeko

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Fitxategi kudeatzailea.**
- 2 Joan karpeta batera eta hautatu **Ireki.**
- 3 Aukeratu **Aukerak > Markatu > Markatu batzuk.**
- 4 Joan elementura, eta hautatu **Markatu**, markatu nahi duzun elementu bakoitzeko.

Telefonoko memoriako elementua memoria-txartelera eramateko, eta alderantziz.

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Fitxategi kudeatzailea.**
- 2 Aurkitu elementua eta hautatu **Aukerak > Fitxategi kudeatzailea > Mugitu.**
- 3 Hautatu **Memoria-txartela** edo **Telefonia.**
- 4 Joan karpeta batera eta hautatu **Ireki.**
- 5 Hautatu **Erantsi.**

Edukiei buruzko informazioa ikusteko

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Antolatzailea > Fitxategi kudeatzailea.**

- 2 Aurkitu elementua eta hautatu **Aukerak > Informazioa.**

Edukiak beste telefono batera bidaltzea

Edukiak, esate baterako, mezuetan edo hariirik gabeko Bluetooth® teknologiaren bidez bidal ditzakezu.

Edukia bidaltzeko

- 1 Joan elementu batera eta hautatu **Aukerak > Bidali.**
 - 2 Hautatu transferentzia-metodo bat.
- ! Ziurtatu hartzailearen gailuak zuk transferitzeko hautatutako modua onartzen duela.

Edukia ordenagailura transferitzea, eta alderantziz

Sony Ericsson Media Manager erabil dezakezu edukia telefonotik ordenagailura, eta alderantziz, transferitzeko.



Telefonoarekin batera banatutako instalaziorako CDan dago *Sony Ericsson Media Manager* softwarea, eta www.sonyericsson.com/support helbidetik ere deskarga daiteke.

Ordenagailutik telefonora edukia mugitzen edo kopiatzen duzunean, eduki ezezagunak

Fitxategi kudeatzailearen **Gehiago** karpetan gordetzen dira.

Behar diren sistema eragileak

CDko softwarea erabiltzek, sistema eragile hauetako bat beharko duzu:

- Microsoft Windows Vista® (hauen 32 bit eta 64 biteko bertsiok: Ultimate, Enterprise, Business, Home Premium, Home Basic)
- Microsoft Windows XP (Pro edo Home), Service Pack 2 edo berriagoa

Sony Ericsson Media Manager instalatzeko

- 1 Piztu ordenagailua, eta sartu CDa. Automatikoki abiarazten da eta instalatzeko leihoa irekitzen da.
- 2 Hautatu hizkuntza eta sakatu **Ados**.
- 3 Egin klik Instalar *Sony Ericsson Media Manager* aukeran, eta jarraitu jarraibideei.

Sony Ericsson Media Manager erabilia edukia transferitzeko

- 1 Konektatu telefonoa ordenagailu batera, telefonoarekin bateragarria den USB kablearen bidez.


- 2 **Ordenagailuan:** Hasi|Programak| Sony Ericsson| Sony Ericsson Media Manager.
- 3 **Telefonoa:** hautatu **Media transf.**
- 4 **Ordenagailuan:** hautatu *gailu eramangarria* eta sakatu *Ados*.
- 5 Itxaron telefonoan *Sony Ericsson Media Manager* agertu arte.
- 6 Mugitu fitxategiak telefonoaren eta ordenagailuaren artean, *Sony Ericsson Media Manager*-en.

! *Ez atera USB kablea telefonotik edo ordenagailutik fitxategien transferentzia egin bitartean, memoria-txartela edo telefonoaren memoria honda baitaitezke.*

💡 *Musika nola transferitu jakin nahi baduzu, sakatu (?) Sony Ericsson Media Manager-en leihoaren eskuineko goiko izkinan.*

USB kablea erabiltzea

Telefonoa ordenagailu batera konekta dezakezu, USB kable baten bidez, eta telefonoko edukia sinkronizatu, fitxategiak transferitu, segurtasun-kopiak egin eta telefonoa modem gisa erabili. Informazio gehiago nahi baduzu, ikus www.sonyericsson.com/support funtzioen gidak kontsultatzeko.



USB kable bat erabili aurretik

Ikus *Behar diren sistema eragileak*, 28. orrialdean.

! *Erabili bakarrik telefonoarekin bateragarria den USB kablea. Ez atera USB kablea telefonotik edo ordenagailutik fitxategien transferentzia egin bitartean, memoria-txartela edo telefonoaren memoria honda baitaitezke.*

USB kablea segurtasun osoz deskonektatzeko

- 1 **Ordenagailuan:** hautatu telefonoarekin erabiltzen ari zaren edozein software.
- 2 Deskonektatu USB kablea.

Edukia arrastatu eta askatzea

Telefonoaren edo memoria-txartelaren eta ordenagailu baten artean edukiak

arrastatu eta aska ditzakezu, *Microsoften Windows-en arakatzaillean*.

Edukia arrastatu eta askatzeko

- 1 Konektatu telefonoa ordenagailura USB kablearen bidez.
- 2 **Telefonoa:** hautatu **Media transf.** Telefonoa aktibo egongo da fitxategiak transferitzen diren bitartean.
- 3 **Ordenagailuan:** itxaron telefonoaren memoria edo memoria-txartela *Windows-en arakatzaillean* kanpoko disko gisa bistaratu arte.
- 4 Arrastatu eta askatu hautatutako fitxategiak, telefonotik ordenagailura eta alderantziz.

Telefonoaren izena

Zure telefonoari izen bat jar diezaiokezu, esate baterako, haririk gabeko Bluetooth teknologia erabiltzen duzunean beste gailuetan bistartzeko.

Telefonoaren izena sartzeko

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua > Ezarpenak > Konektagarritasuna** fitxa > **Telefonoaren izena**.
- 2 Sartu telefono-zenbakia eta hautatu **Ados**.

Haririk gabeko Bluetooth® teknologia erabiltzea

Bluetooth® funtzioa doakoa da, eta, haren bidez, haririk gabe konekta zaitezke beste Bluetooth gailu batera. Besteak beste, aukera hauek dituzu:

- Esku libreko gailu batera konektatzea.
- Une berean hainbat gailutara konektatzea.
- Ordenagailutara konektatzea eta Internetera sartzea.
- Elementuak trukatzeko.
- Hainbat jokalariren artean jokatzea.

! *Bluetooth bidezko komunikaziorako 10 metroko tartea (33 oin) edukitzea eta tartean objektu solidorik ez egotea gomendatzen da.*

Haririk gabeko Bluetooth teknologia erabili aurretik

Bluetooth funtzioa aktibatu behar duzu, beste gailuekin komunikatzeko. Baliteke telefonoa beste Bluetooth gailuetara lotu behar izatea.

Bluetooth funtzioa aktibatzea

- Itxaroteko moduan, hautatu **Menua > Ezarpenak > Konektagarritasuna** fitxa > **Bluetooth > Aktibatu**.

! *Egiaztatu zure telefonoarekin lotu nahi duzun gailuak Bluetooth funtzioa aktibatuta duela eta ikusteko moduan dagoela.*

Telefonoa gailu batekin lotzeko

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua > Ezarpenak > Konektagarritasuna** fitxa > **Bluetooth > Nire gailuak**.
- 2 Zoaz **Gailu berria** aukeraraino, eta hautatu **Gehitu** eskura dauden gailuak bilatzeko.
- 3 Hautatu gailu bat.
- 4 Idatzi sarbide-kodea, behar izanez gero.

Telefonoarekin konektatzeko aukera emateko

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua > Ezarpenak > Konektagarritasuna** fitxa > **Bluetooth > Nire gailuak**.
- 2 Hautatu gailu bat zerrendan.
- 3 Hautatu **Auker.** > **Baimendu konex.**
- 4 Hautatu **Galdetu beti** edo **Baimendu beti**.

! *Zerbitzu seguru baterako sarbidea behar duten gailuetan bakarrik da posible hori.*

Telefonoa lehen aldiz Bluetooth esku libreko batekin lotzeko

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua > Ezarpenak > Konektagarritasuna** fitxa > **Bluetooth > Esku libreak**.
- 2 Joan gailu batera, eta hautatu **Bai**.
- 3 Idatzi sarbide-kodea, behar izanez gero.

Energia aurreztea

Energia aurreztea funtzioarekin bateriaren energia aurrez dezakezu. Energia aurrezteko moduan, Bluetooth gailu bakarrarekin konekta zaitezke. Aldi berean Bluetooth gailu batera baino gehiagotara konektatu nahi izanez gero, desaktibatu egin beharko duzu funtzio hori.

Energia aurrezteko aukera aktibatzea

- Itxaroteko moduan, hautatu **Menua > Ezarpenak > Konektagarritasuna** fitxa > **Bluetooth > Bateria aurreztu > Aktibatu**.

Bluetooth esku-libreko eta esku-librekorako soinua transferitzea

Soinua transferi dezakezu Bluetooth esku libreko gailu batetik eta gailu horretara, telefonoko edo esku libreko gailuko tekla bakar bat sakatuta.

Soinua transferitzeko

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua > Ezarpenak > Konektagarritasuna** fitxa > **Bluetooth > Eskulibrea > Sarrerako deia**.
- 2 Hautatu aukera bat. **Telefonoan** aukerarekin, soinua telefonora transferitzen du. **Eskulibrea** aukerarekin, soinua eskulibrekorako transferitzen du.

Hitz egiten ari zarela, soinua transferitzeko


- 1 Hitz egiten ari zarela, hautatu **Soinua**.
- 2 Hautatu zerrendako funtzio bat.

Segurtasun-kopiak eta leheneratzea

Sony Ericsson PC Suite-ren bidez kontaktuen, egutegiaren, egitekoen, oharren eta gogokoen segurtasun-kopiak egin ditzakezu; halaber, berrezarri egin ditzakezu. *Sony Ericsson Media Manager*-en bidez, musikaren, argazkien eta bideo klipen segurtasun-kopiak egin ditzakezu; halaber, berrezarri egin ditzakezu.

Segurtasun-kopiak egin aurretik eta berrezarri aurretik, *Sony Ericsson PC Suite* eta *Sony Ericsson Media Manager* instalatu behar dituzu.


Kontaktuen segurtasun-kopiak egin ditzakezu eta telefonoan berrezarri, Memory Stick Micro® (M2®) memoria-txartelaren erabilita. Telefonoko memoriako edukia memoria-txartelera eraman dezakezu, eta alderantziz. Ikus *Telefonoan edukia kudeatzea* 26. orrialdean.

 *Telefonoako edukiaren segurtasun-kopiak egin ditzakezu aldizka, ez direla galduko bermatzeko.*

Sony Ericsson PC Suite bidez segurtasun-kopiak egiteko

- 1 Ordenagailuan: abiarazi *Sony Ericsson PC Suite*, aukera honetatik: *Hasil Programak*|*Sony Ericsson*|*Sony Ericsson PC Suite*.
- 2 Nola konektatu jakiteko, segi *Sony Ericsson PC Suite*-ren jarraibideei.
- 3 **Telefonoa:** hautatu **Telefonoaren modua**
- 4 **Ordenagailuan:** joan segurtasun-kopiaren aukerara; berrezarri *Sony Ericsson PC Suite* eta egin segurtasun-kopia.


Sony Ericsson PC Suite erabilita telefonoaren edukia berrezartzeko

 *Berrezartze-prozesuan, Sony Ericsson PC Suite-ek gainean idatziko du telefonoaren eduki guztia. Prozesua eteten baduzu, telefonoa hondatu egin daiteke.*


- 1 **Ordenagailuan:** abiarazi *Sony Ericsson PC Suite*, aukera honetatik: *Hasil Programak*|*Sony Ericsson*|*Sony Ericsson PC Suite*.
- 2 Nola konektatu jakiteko, segi *Sony Ericsson PC Suite*-ren jarraibideei.
- 3 **Telefonoa:** hautatu **Telefonoaren modua**
- 4 **Ordenagailuan:** joan segurtasun-kopiaren aukerara; berrezarri *Sony Ericsson PC Suite* eta berrezarri telefonoaren edukia.


Sony Ericsson Media Manager bidez segurtasun-kopiak egiteko

- 1 Konektatu telefonoa ordenagailura USB kablearen bidez.
- 2 **Telefonoa:** hautatu **Media transf.** modua
- 3 **Ordenagailuan:** abiarazi *Sony Ericsson Media Manager*, aukera honetatik: *Hasil Programak*|*Sony Ericsson*|*Sony Ericsson Media Manager*.

- 4 Hautatu *Sony Ericsson Media Manager*-en segurtasun-kopien atala.
 - 5 Hautatu segurtasun-kopiak egiteko fitxategiak, eta egin kopia horiek.
-  *Telefonoa ordenagailura konekta dezakezu Bluetooth bidez.*

Sony Ericsson Media Manager-ekin telefonoko edukia berrezartzeko

-  *Sony Ericsson Media Manager-ek alderatu egingo ditu telefonoko edukia eta ordenagailuko segurtasun-kopia eta telefonoan falta diren fitxategiak berrezarriko ditu. Prozesua eteten baduzu, telefonoa hondatu egin daiteke.*
- 1 Konektatu telefonoa ekipora.
- 2 **Telefonoa:** hautatu **Media transf.** modua
- 3 **Ordenagailuan:** abiarazi *Sony Ericsson Media Manager*, aukera honetatik: *Hasil Programak*|*Sony Ericsson*|*Sony Ericsson Media Manager*.
- 4 Hautatu *Sony Ericsson Media Manager*-en segurtasun-kopien atala.
- 5 Hautatu berrezarri nahi dituzun fitxategiak eta berrezarri.

 *Sony Ericsson Media Manager bidezko segurtasun-kopiei eta berrezartzei buruzko informazio gehiago behar izanez gero, ikus *Sony Ericsson Media Manager*-en funtzio-gidaliburua, www.sonyericsson.com/support gunean.*

Deiak

Deiak egitea eta jasotzea

Telefonoa piztea eta sare-estaldura egotea ezinbestekoa da.

Deia egiteko

- 1 Itxaroteko moduan, sartu telefono-zenbakia (herrialdearen nazioarteko aurrezenbakiarekin eta eremuko kodearekin, baldin badagokio).

- 2 Sakatu .




Telefono-aurkibideko eta dei-zerrendako zenbakietara dei dezakezu. Ikus [Kontaktuak 36. orrialdean](#) eta [Dei-zerrenda 36. orrialdean](#). Deiak egiteko ere ahotsa erabil dezakezu. Ikus ["Ahots kontrola" atala 40. orrialdean](#).

Deia amaitzea

- Sakatu .

Nazioarteko deiak egiteko

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, luze sakatu , "+" ikurra agertu arte.
- 2 Sartu herrialdearen kodea, eremu-kodea (hasierako zeroa jarri gabe) eta telefono-zenbakia.

- 3 Sakatu .

Zenbaki bat beriz markatzeko

- **Berriro saiatu?** agertzen denean, aukeratu **Bai**.



Ez eraman telefonoa belarriaren ondora zain zauden bitartean. Konexioa ezartzean, telefonoak soinu ozen bat emititzen baitu.

Dei bati erantzuteko

- Sakatu .



Deia ez onartzeko

- Sakatu .

Hitz egiten ari zarenean, entzungailua duen bozgorailuaren bolumena aldatzeko

- Sakatu bolumen-tekla gorantz edo beherantz.

Mikrofonoa hitz egitean itzaltzeko

- 1 Luze sakatu .
- 2 Luze sakatu  tekla berriro martxan jartzeko.

Hitz egiten ari zarenean, bozgorailua aktibatzeko

- Sakatu **Boz. akt.**



Ez eraman telefonoa belarriaren ondora bozgorailua erabiltzen duzun bitartean. Belarrian min har dezakezu.

Deiak jasotzeko/egiteko egoeran galdutako deiak ihusteko

- Sakatu  deien zerrenda irekitzeko.

Sareak

Telefonoak automatikoki aldatzen du GSM eta 3G (UMTS) sareen artean batetik bestera. Sare-operadore batzuek sareak eskuz aldatzeko aukera ematen dute.

Sareak eskuz aldatzeko

- 1 Itxaroteko moduan, hautatu **Menua > Ezarpenak > Konektagarritasuna** fitxa > **Sare mugikorrek > GSM/3G sareak**.
- 2 Hautatu aukera bat.

Larrialdi-deiak

Telefonoak nazioarteko larrialdi-zenbakiak onartzen ditu, adibidez, 112 edo 911. Zenbaki horiek edozein herrialdetan larrialdi-deiak egiteko erabil daitezke, gailuan SIM txartela sartuta edo sartu gabe, sare baten estalduraren barruan badago.



Herrialde batzuetan, beste larrialdi-zenbaki batzuk ere egon daitezke. Beraz, baliteke zure sare-operadoreak tokiko beste larrialdi-zenbaki batzuk gorde izana SIM txartelean.

Larrialdi-deia egiteko

- Sartu 112 (nazioarteko larrialdi-zenbakia) eta sakatu .


Tokian tokio larrialdi-zenbaki lokalak ihusteko

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Kontaktuak**.
- 2 Joan **Kontaktu berria** aukerara, eta hautatu **Aukera > Zenbaki bereziak > Larrialdi zenbakiak**.

Bideo-deia

Zure esperientziak denbora errealean parteka ditzakezu senideekin eta lagunekin, edo beste uneren batean partekatzeko gorde. Pantailan ikusten duzu solaskidea, eta hark zuk telefonoko kamerarekin fokatzen duzuna ikusiko du.

Bideo-dei bat egin aurretik

3G (UMTS) zerbitzua erabilgarri dago  ikonoa bistaratzen denean. Bideo-dei bat egin ahal izateko, 3G (UMTS) zerbitzua onartzen duen eta 3G (UMTS) estaldura duen 3G (UMTS) telefono-harpidetza eduki behar dute bi solaskideek.

Bideo-dei bat egiteko.

- 1 Itxaroteko moduan, sartu telefono-zenbakia (herrialdearen nazioarteko aurrezenbakiarekin eta eremuko kodearekin, baldin badagokio).
- 2 Aukeratu **Aukerak > Egin bideo deia.**

Egindako bideo-dei batean zooma erabiltzeko

- Sakatu  edo .



Bideo-deien aukerak ikusteko

- Hitz egiten ari zarela, hautatu **Aukerak.**

Dei-zerrenda

Azken deiei buruzko informazioa ikus dezakezu.

Dei-zerrendako zenbaki batera deitzeko

- 1 Deiak egiteko/jasotzeko egoeran, sakatu  eta aukeratu fitxa bat.
- 2 Joan izen edo telefono-zenbaki batera, eta sakatu .

Karpeta

Izenak, telefono-zenbakiak eta informazio pertsonala gorde ditzakezu kontaktueta. Informazioa telefonoaren memorian edo SIM txartelean gorde dezakezu.



Sony Ericsson PC Suite bidez kontaktua sinkronizatzen

Lehenetsitako telefono-aurkibidea

Kontaktueta informazioa hauta dezakezu lehenetsita bistartzeko. Lehenetsitako aukera gisa **Kontaktua** hautatzen baduzu, **Kontaktua** aukeran gordetako informazio guztia bistaratu du telefono-aurkibidea. Aurrez zehaztutako aukera gisa **SIM kontaktua** hautatzen baduzu, SIM txartelean gordetako izenak eta telefono-zenbakiak bistaratu ditu.

Lehenetsitako telefono-aurkibidea hautatzeko

- 1 Itxaroteko moduan dagoela, hautatu **Menua > Kontaktua**.
